

## TOLOSALDEKO EMAKUMEEN ETXEA GARATZEKO PROZESUA

### TALDE ERAGILEAREN 4. BILERAREN AKTA

**Eguna:** 2021-11-17

**Ordua:** 18:00-20:30

**Lekua:** Tolosako Amaro azuzoko auzo-etxe lokala

**Partaideak:**

#### PARTE-HARTZAILEAK

Tolosaldeko emakume-elkarteetako, eragile feministetako nahiz norbanako gisa parte hartzen duten emakumeak. Guztira 13 emakume.

Tolosako Udaleko berdintasun-teknikaria

Elhuyarreko teknikariak (bi teknikari)

#### Gai zerrenda:

##### 1.- SARRERA

Elhuyarreko dinamizatzaile berria dugunez, erronda azkarra egin dugu gure buruak aurkezteko. **Girotzeko dinamika** ez dute egin nahi izan zenbaitek eta beraz, modu informalean konpartitu dute hainbatek eguneko momentu edo sentsazio bat. Asko nekatuta datoz.

Ondoren, gaurko **bileran landuko ditugun gaiak** aurkeztu ditugu.

##### 2.- LANTALDE POLITIKO TEKNIKOAN HARTUTAKO ERABAKIAK

Aurreko astean izandako Lantalde Politiko Teknikoan hartutako erabakien berri eman dugu. Lantalde Politiko Teknikoak **begi onez ikusi du Talde Eragilean orain arte egindako lanketa guztia:** kudeaketa-eredua, elkartearen sorrera, erabiltzaileak, eskubide eta betebeharrak. Edozein kasutan, tarte bat ireki da balizko ekarpenak egiteko. **Kudeaketa-ereduarekin lotuta** aipatu dugu zalantza agertu zela Etxeko dinamizatzaileak eta Tolosako Udaleko Berdintasun Teknikariak harreman zuzena izan behar ote duten gainerako Udaletako Gizarte Zerbitzuetako teknikariek. Berdintasun gaiak sail desberdinetan lantzen dira, ez beti Gizarte Zerbitzuetatik. Zehaztu da, indarkeriarekin lotutako gaiak komeni dela koordinatzea sail honekin.

**Finantzaketa partekatuari dagokionez**, informatu da nola Tolosako Udalak aurkeztu duen Etxea martxan jarri ahal izateko herri bakoitzak jarri beharko lukeen kantitatea, gastu arruntari zein dinamizatzaileari lotuta,. Banaketa egiterakoan, Udalen 2021eko diru sarrera arruntak hartu dira kontuan. Gainerako udal ordezkariak egoki ikusi zuten proposamena, eta orain udal guztiei honen berri emango zaie. **Dinamizatzailearen kontratazioaren kasuan**, 27 herrien artean adostutako proposamena landuko dute Asteasu eta Berastegiko Udalek.

**Emakumeen Etxea proiektua herrietan zabaltzeko beharra** jarri zen mahai gainean Lantalde Politiko Teknikoan. Udalak jartzera doazen dirua erabilgarria dela ikusteko herritarren (emakumeen) partetik eskaria edo bultzada izatea beharrezkotzat jo zen. Horretarako, Lantalde Politiko Teknikoan dauden Mugimendu Feministako ordezkariak konpromiso hau hartu zuten: Talde Eragileko kide bezala, parte-hartze prozesua hasi aurretik egindako bileretan lortutako emakumeen kontaktuei (herrietako 150 emakume norbanako inguru) email informatzaile bat bidaliko diete. Proiektua zertan den azaltzeaz gainera, beraien herrietako udaletara jotzea proposatuko zaie bertako udal arduradunei

proiektuaren beharraz ohartarazteko. Zalantzak agertu dira ekimen honen inguruan, Talde Eragileak eta emakumeek ardura asko hartzea delakoan, eta hein batean Udalaren lana izan beharko lukeena egitera doazelako. Baina edozein kasutan aurrera jarraituko da ordezkari hauek konpromiso hori hartu zutelako. Bai ikusten da beharrezkoa udalak presionatzea denek egin dezaten ekarpen ekonomikoa, izan ere, herriren bat atzera botatzen bada gainerakoek gehiago jarri beharko baitute. Proposamen bezala atera da. Etxearen Elkartearen **bazkide figura kontuan izatea** eta bazkide kopurua presio moduan erabiltzea; Donostian horrela egin zuten. Egoki ikusi da proposamena.

### 3.- ETXEAREN ELKARTEA

Gogora ekarri dugu nola hiru pertsonen osatutako lantaldeak Elkartearen estatutuak landu eta aurkeztu zituen azken Talde Eragilean. Ez da ekarpenik jaso beraz, horrela geratuko lirateke. Era berean, **elkarteko presidentea, idazkaria eta diruzaina** izateko hautagaiak aurkezteko tartea eman genuen, eta jasotako proposamenen ondorioz, horrela geratuko lirateke:

- Lehendakaria: Ixiar Arratibel (Ibarra)
- Diruzaina: Pilar Garaialde (Tolosa)
- Idazkaria: Ana Sanz (Tolosa)

Ordezkaritzak eskualde izaera izatea jarri zen irizpidetzat baina egindako saiakerek emaitza hau eman dute. Atera den zalantzetako bat izan da ea kudeaketa organoetan elkarteko ordezkariak hiru pertsona hauek izan behar duten edo beste norbait hautatu daitekeen. Momentuz ez da elkarte-kideen figura aurreikusitako, hiru horiek soilik egongo lirateke elkartearen baina honi buelta bat emateko beharra ikusi da. Nortzuk osatuko dute elkartea? Bazkideak edo elkarte-kideak egongo dira? Eta elkartea osatzen dutenen artean hautatuko dira ordezkariak? Printzipioz gehiengoak ongi ikusi du bazkide figura kontuan izatea, edozein kasutan, Hurrengo Talde Eragilean lantzekotan geratu gara.

Hurrengo urratsa elkartea erregistratzea izango da, eta horretarako, **elkartearren izena** zehaztu beharra dago; aurreko Talde Eragilean adostu zen Etxearen izen zehatza adostu gabe dagoenez, *Tolosaldeko Emakumeen Etxea* izena jartzea elkarteari. Edonola ere, interesgarriagoa jo da Etxearen izen zehatza eta elkartearena berdina izatea. Horregatik, hurrengo Talde Eragilean erabakiko da Etxearen izena zein izango den, eta berdina jarriko zaio elkarteari baina *Tolosaldeko* gehituta, alegia, \_\_\_\_\_ *Tolosaldeko Emakumeen Etxea Elkartea*. Elkartearen estatutuak urtarrila-otsailan itxiz gero, elkartea erregistratzeko garaiz izango gara (3 hilabete eramaten ditu honek). Izenaren erabakia azkartzeko, 1. fasean landutako proposamenak bidaliko dira, halaber, berriak egiteko aukera zabalduko da, horrela, erabakia azkarrago hartzeko hurrengo Talde Eragilean. Doodle batean izen aukera guztiak eskaini eta bertan bozkatzeko proposamena ere egin da.

### 4.- ETXEAREN HELBURUAK ETA PRINTZIBIO GIDARIAK

Gogoratu dugu nola Erregelamenduaren atal guztiak erreparatu eta zehazten ari garen. Itxita ditugu *kudeaketa-eredua*, *Etxearen erabiltzaileak* eta *Etxearen eskubide eta betebeharrak*. Gaurko asmoa da Etxearen **helburu eta printzipio gidariak** zein Etxearen **zerbitzu eta jarduerak** zehazteko ariketa egitea.

Horietan sartu aurretik, **Etxearen erabiltzaileak atalari ekarpen** bat egitea proposatu dugu Elhuyarretik, definizioa osatuagoa geratuko delakoan:

## ETXEAREN ERABILTZAILEAK

Etxearen erabiltzaile nagusiak 16 urtetik gorako emakumeak izango dira, norbanakoak zein Etxearen kudeaketa-organoetan dauden taldeetakoak, **Tolosaldeko talde feministetakoak zein gizon eta emakumeen arteko berdintasuna helburu duten emakumeen elkarteetako kideak.**

Etxearen jarduerak emakumeei zuzendutakoak izango dira, oro har, eta hartzailea edo xede-taldea zein den zehaztuta ez dagoenean, emakumeei zuzendutakoa dela ulertuko dugu.

Emakumeek Etxea bere egindakoan eta horretarako unea dela adostutakoan hasiko da Etxea jarduera mistoak antolatzen.

Egoki baloratzen den unean, mistoak diren edo gizoni zuzendutako jarduerak antolatzeko aukera egongo da. Hala denean:

- Argi eta garbi adierazi beharko da jarduera mistoa edota gizonezkoei zuzendutakoa dela.
- Beti egongo dira zuzenki lotuta berdintasunarekin eta feminismoarekin.

Ekarpen honek erreferentzia egiten die egunerokoan Etxean parte hartzen ez duten kolektibo edo elkartei, hauek ere Etxea bere senti dezaten. Egoki ikusi da eta onartuta geratu da.

Segidan, Etxearen helburu eta printzipio gidariei heldu diegu.

1. fasean adostu zena gogoratu dugu:

### 03 ZERTARAKO Emakumeen Etxe bat Tolosan? (Helburuak)

#### GUTASUN BATEN PARTE SENTITZEKO

- Gertutasuna eta konfiantza eskaintzeko, entzuna eta ulertua izateko.
- Parte sentitzeko eta parte izateko.
- Seguru eta babestuta sentitzeko.
- Libre izateko.
- Aisialdiko jarduerak lantzeko, giroari arreta berezia jarrita.

#### SAREAK ERAIKITZEKO

- Emakume anitzak (adina, jatorria, klasea, ideologia, gaitasun...) elkartzeko, saretzeko eta sinergiak lantzeko.
- Eskualdeko mugimendu feminista sendotzeko.
- Eskualdeko emakume guztien indarrak batzeko.
- Emakume-taldeen egoitza izateko.


#### AHALDUNTZEKO

- Informazioa jasotzeko eta ikasteko. Garapenerako gunea izateko.
- Emakumeak etengabe ahalduntzeko: Jabetze Eskola.
- Feministak sortzeko laborategia izateko, feminismoaren inguruko sentsibilizazioa lantzeko.

#### ERALDAKETA SOZIALERAKO

Eraldaketa ikuspegitik jendarteko eremu guztietan politikoki eragiteko (behatoki kritikoa): elkarte gastronomikoak, ikastetxeak, jaiak, enplegua, zaintza-lanak, etab.

### 03 PRINTZIOPIO GIDARIAK (Nolakoa)



Gipuzkoako Foru Aldundiak martxan jarri duen herrialde mailako Emakumeen Etxeen artean egiten ari den lanketa baliatuz, bertan identifikatutako helburu zein ezaugarriak ere partekatu ditugu orain arte guk egindako lana aberastu dezakeelakoan. Honakoak dira martxan dauden Gipuzkoa mailako Emakumeen Etxeek komunean dituzten ezaugarri nagusiak:

### GIPUZKOAKO EMAKUMEEN ETXEEN HELBURU ETA EZAUGARRI NAGUSIAK

Zertarako?	1. Emakumeak ahalduzko eta sareak/topaguneak sortzeko.	2. Indarkeria matxista ikuspegi integraletik lantzeko.	3. Mugimendu feministarekin aliantzak egiteko, eraldaketa sozialaren norabidean.
Nolakoa?	1. Ekipamendu publiko-komunitarioak	2. Gune seguruak, konfiantzazkoak eta epaiketarik gabekoak.	3. Aniztasuna ezaugarri eta helburu.

**Indarkeriaren inguruko azalpena** ere eman dugu, izan ere, Gipuzkoako Foru Aldundiak indarkeria matxista terminoa erabiltzen du honek barnebiltzen dituelako, emakumeei berariaz ezartzen zaien indarkeriaz gain, sexu-genero sistemaren arauetan sartzen ez diren pertsonen aurka gauzatzen diren gainerako indarkeria motak, homofobia, lesbofobia eta transfobia barne. Politika zehatzak gauzatzeko ordea, emakumeei berariaz ezartzen zaien indarkerian jartzen da fokua.

Behin azalpenak emanda, aipatutako informazioa biltzen duen orriak banatu dizkiegu, eta **3 talde osatu** ditugu lanketa egiteko galdera hauen inguruan:

- **Helburuetan (zertarako Etxea) eta printzipio gidarietan (nolakoa) zerbait kendu, aldatu edo gehituko zenuke?**
- **Zerbaitek sortzen dizu zalantza edo gatazka? Zerk? Eta nola bideratuko zenuke?**

Talde handira itzulita, **talde bakoitzak egindako lana partekatu** dugu:



### TALDE GORRIA

- Dagoen bezala ongi ikusten dute.
- Zalantza bezala edo gehitzeko proposatu dute “Indarkeria matxista ikuspegi integraletik lantzeko” baina ez dakite oso ondo zein koadrotan sartu.

### TALDE HORIA

- Helburuetan erantsi dute: “Indarkeria matxista ikuspegi integraletik lantzeko”
- Printzipio gidarietan gehitu dute: Ekipamendu publiko-komunitarioa. Jabetza publikoa.

### TALDE MOREA

- Helburuetan “indarkeria matxista ikuspegi integraletik lantzea” izeneko koadro berri bat sortzea proposatu dute. Honen barruan hau gehituko lukete: “baliabide publiko komunitarioak eta tresna kolektiboak eskaintzea”.
- Printzipio gidarietan berriz, gehitu dute: irisgarria eta sarbide errazekoa.

Adostasuna egon da emaitzarekin, baina **“irisgarritasuna eta sarbide errazekoa”** terminoek azalpena behar dutela argi ikusi da, bestela alde fisikoa bakarrik ulertu daitekeelako (eskailerak kentzea, adibidez). Horrez gain, esan nahi dena da emakumeei harrera erraztuko zaiela, ez zaiela NANA eskatuko, doakoa izango dela etabar. Hurrengo bilerarako hiru proposamen landuko dira eta hauen artean hautatuko da. Norberak pentsatu eta egin dezake proposamena, ongi-etorriak izango dira.



## 5. ETXEAREN JARDUERAK ETA ZERBITZUAK

1.fasean adostu ziren jarduera eta zerbitzuak gogoratu ditugu:

### 04 ETXEAREN JARDUERAK ETA ZERBITZUAK



Etxearen jarduerak Etxean nahiz Etxetik kanpora, Tolosan zein Tolosaldeko beste udalerrietan antolatuko dira

Jardueraren arabera, zaintza-zerbitzua jartzea baloratuko da

#### ETXEA EZAGUTARAZTEKO, HARREMANAK ERAIKITZEKO ETA BERDINTASUNA/KONTZIENTZIA FEMINISTA SUSTATZEKO JARDUERAK

Ate irekiak
Emakumeen Etxeen arteko topaketak
Tailerrak; hitzaldiak; ikastaroak; mahai-inguruak; jardunaldiak; <u>monografikoak...</u>
Batzarrak; eztabai datzeko espazio kritikoak; topaketak; <u>hausnarketak...</u>
Jarduera ludikoak (jaiak) edo gastronomikoak (bazkariak, afariak, meriendak)
Jarduera kulturalak: erakusketak, kontzertuak, irakurle-klubak, <u>zine-forumak...</u>
Kirol-jarduerak; mendi-martxak
Kaleko ekintza zuzenak: espazio publikoan emakumeen ikusgaitasuna handitzeko ekimenak; manifestazioak; <u>performaceak</u> ; inauterietako konpartsa; etab.
Ekimen solidarioak (genero-ikuspegiarekin)
<u>Maskulinitateen</u> inguruko tailerrak

#### ETXEAREN BESTELAKO JARDUERAK


<b>Aholkularitza-zerbitzuak:</b> psikologikoa (banakakoa zein taldekakoa), juridikoa, sexualitatearen ingurukoa, homologazioa, laborala, etorkinentzako harrera
<b>Ahalduntzeko guneak edo dinamikak</b>
<b>Behatoki kritikoa. Azterketak:</b> <u>mapeoak</u> , diagnostikoak, ikerketa-bekak
<b>Denboraren bankua</b>
<b>Emakume sortzaileen ikusgaitasunerako gunea</b>
Esparru desberdinetan <b>esku hartzeko egitasmoak</b>

1.fasean zehaztutako jarduera eta zerbitzuak postit-etan idatzita jarri ditugu paretan (aurrez landutako helburu eta printzipio gidariekin batera) denok bistan izateko. Jarraian **bakarkako lan** egin dugu bi galdera hauei erantzunez:

- Jarduera edo zerbitzu berriren bat gehituko zenuke? Hala bada, idatzi postit-ean eta itsatsi paretan.
- Jarduera eta zerbitzuen lehentasuna identifikatu gometxen bitartez. Horretarako, 3 gometxa hartu ditu bakoitzak hiru garrantzitsuenak markatzeko.




Emaitzak argi erakutsi du, **lehentasuna dutela jarduera eta zerbitzu hauek** orden honetan:



Jarduera eta zerbitzu berri batzuk ere proposatu dira eta jada zerrendatuta dauden hauen barruan txertatu ditugu:

- ➔ Ahalduntzeko gune eta dinamikaren barruan:
  - Jatorri desberdinetako emakumeen ahalduntze taldea
  - Desgaitasuna duten emakumeen ahalduntzeko taldea
  - Indarkeriari aurre egiten dioten emakumeen taldea
- ➔ Behatoki kritikoa. Azterketak egitea:
  - Dokumentazio gunea

Horrela geratu da ariketaren emaitza:



**Interseksionalitatea edo emakume desberdinen beharrak** presente eduki beharra nabarmendu da. Hortaz, lehentasunak markatu bai baina jarduera eta zerbitzu guztiak garrantzitsutzat jo eta guztiak kontuan izatea eskatu da.

## 6. BESTERIK

Obrekin lotuta, eraikineko bizilagunek ez dute onartu fatxadaren diseinua eta aldatzeko eskatu dute. Ondorioz, aurreikusitako inklinazioa kenduko da eta egurrez forratuko da. Proiektu berria aurkeztu eta obraren lizitazioa egingo da segidan. Lau hilabeteren buruan hasiko dira obrak; **2022ko irailean 1.eraikina irekitzeko moduan egongo da, eta 2022ko abenduan 2.eraikina.**

Talde Eragilearen hurrengo bilera **urtarrilaren 26an arratsaldeko 18:00etan** Amaroizko auzo-etxe lokalean izango da.

Aktekin lotuta proposatu da, bidaltzen den lehen dokumentuari *aktaren zirriborroa* deitzea, eta behin ekarpenak egiteko tartea itxita, dokumentuari *akta* deitzea.

## 7. BILERAREN BALORAZIOA

Bukatzeko, **bilera baloratzeko** balorazio-orriak banatu ditugu. Hauek dira jasotako balorazioak 1-5 eskalan, 1= oso txarra eta 5= oso ona dela aintzat hartuta:

BALORAZIO-ALDAGAIA	BATEZ BESTEKO PUNTUAZIOA (1-5)
Emankorra	4,2
Gardena	4,7
Konfiantzan oinarritutakoa	4,5
Hezteko eta garatzeko balio duena	4,2
Harreman horizontaletan/ahizpatasunean oinarritutakoa	4,3
Parte-hartzailea	4,7

- **Zerk sentiarazi zaitu ongi?**
  - Orokorrean eroso sentitu naiz
  - GIROA, eta ilusioa ematen du dagoela proiektua gauzatua ikusteko. Iraila 2022!!!! Bada errealitate bat
  - Biltzeak egitasmoarekiko ilusioa mantendu arazten dit.
  - Prozesu osoan zehar taldekide izan ez naizen arren, ateak zabalik aurkitu ditut.
  - Orokorrean ondo sentitu naiz.
  - Sortu den giroa. Lasai hitz egiteko moduan.
- **Zerk sentiarazi zaitu deseroso?**
  - Errepikatu egin dira hainbat kontu nire ustez.
  - Partikularki ezerk.



**Hartutako konpromisoak:**

KONPROMISOA	ARDURADUNA
Etxearen izen aukeretan pentsatu, proposamen berririk balego egin, eta norberaren gustukoena pentsatuta eraman hurrengo bilerarako.	Talde Eragileko partaideak
Etxearen izen-proposamenak bidali eta guztiok erraz moldatzeko bozketa modua zehaztu (online-eko bozketa modu erraz bat proposatzen saiatuko gara, hurrengo bilerarako bozketa eginda edukitzeko)	Elhuyar
<i>Irisgarritasuna eta sarbide errazekoa</i> terminoen azalpenean pentsatu eta proposamena egin	Elhuyar + partaideak

**Eskerrik asko zuen parte hartzeagatik, neskak!**

